



ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA (ELE) ARAUTZEKO ORDENANTZA ONARTU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

Zumaiako Udalaren asmoa da udalerrian eragin linguistikoaren ebaluazioa (ELE) arautzeko ordenantza onartzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

"1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a. Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b. Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c. Arauaren helburuak.*
- d. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik."*

Lege horretan zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, Udalak erabaki du udalerriko ELE ordenantza onartu baino lehen, horri buruz jendaurreko kontsulta bat egitea. Horrenbestez, herritarrek, erakundeek edo elkarteek beren **ekarpenak** egin ahal izango dituzte, hala nahi izanez gero, **2023ko martxoaren 10era arte**, bi bide hauetatik edozein erabilita:

- Posta elektronikoz helbide honetara bidalita:
euskaratxanpan@zumaia.eus
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuta (Foruen plaza 1, Herritarren Arreta Zerbitzuan).

EKIMEN HONEN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Zumaia udalerrira euskalduna da, euskara indizeak % 70etik gorakoa duela (% 80,32koa). Gainera, bada ikuspuntu soziolinguistikotik aparteko balioa duten gune bat, Oikia arnagunea, euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa da (euskaldunak % 83,33 dira, Zumaian % 74,02).

Ordenantzaren bitartez, eragin linguistikoa noiz, nork eta nola ebaluatuko duen zehaztuko da, arnaguneak babesteko eta indartzeko, eta udalerrira euskaldun izaerari eusteko.

Dokumentu kod.	2023IERR0003-T23/00027
CUDO kodea	000.0081.AAAADXHE.B.vjy1
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADXHEB.vjy1



ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zioen azalpenean, argi adierazten du hizkuntza inpaktuaren ebaluazioak izaera irekia daukala eta izaera hori arrazoizkoa dela, bai administrazio jardueraren sinplifikazio printzipioaren ikuspegitik bai hizkuntza politikako tresna gisa izan behar duen efikaziagatik. Ondoren zehazten du: «... gai honetan ere udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxieneko irizpide batzuk betez».

Ordenantzak proposatzen duena da Dekretuan xedatutakoa udalerrira egokitu eta gaia kudeatzeko baliabideak antolatzea.

ORDENANTZAREN HELBURUAK

Ordenantzaren helburua da, batetik, hizkuntza alderdiak gehitzea Zumaiako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan; eta bestetik, euskararen erabilera normalizatzeko onuragarrienak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea eta, ondorioz, neurriak diseinatzea, gainerako ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.

BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ-ERREGULATZAILEAK

Toki erakundeen araugintza edo erregelamendu ahalaren adierazpenak dira toki ordenantzak eta erregelamenduak. Beraz, erreferentziazko gaiaren araudia garatzeko Udalak duen aukera arautzaile bakarra dira.

Argitaratze data: 2023/02/17

Dokumentu kod.	2023IERR0003-T23/00027
CUDO kodea	000.0081.AAAADXHE.B.vjy1
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADXHEB.vjy1